Zure izena eta Bizkaia, bat eginda

Une tu nombre al de Bizkaia

@bizkaia.eu

BiscayTIK

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Leioa, 2009ko abuztuak

## Zer da bizkaia.eu posta?

- Posta elektronikoko doako zerbitzua da, BiscayTIK proiektu estrategikoaren barruan sartzen dena. Bere helburuen artean administrazioa herritarrengana hurbiltzea dago.
- Baina herritarrek administrazioarekin komunikatzeko ez ezik, beste gauza batzuetarako erabil dezakete kontu hau eta norberak nahi badu posta pertsonala ere izan daiteke. Aldi berean aukera ematen du postako helbide bat edukitzeko Lurraldeari dagokionez adierazgarria den domeinu baten, bizkaia.eu, eta ahaztu gabe hori Bizkaiko administrazio publikoen babes eta bermearekin egiten dela.
- Bizkaian erroldatuta dauden eta 14 urte baino gehiago dituzten pertsona guztiek zerbitzu berri honen informazioa jasoko dute Bizkaiko Foru Aldundiak igorriko duen gutun pertsonalizatu baten bidez. Gutun horrek aktibatzeko balioko duen kode bat izango du, eta bizkaia.eu domeinuari lotuta posta elektronikoko zure kontu berria sortzeko erregistroko web orrira iristeko esteka bat.

# Posta-zerbitzuaren ezaugarriak

Zerbitzuaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Posta-zerbitzuan erregistratzeko eta zerbitzura sartzeko honako URL honetara jo behar da: http://www.bizkaia.eu
- Posta-kontuak **bizkaia.eu** domeinuari lotuta egongo dira.
- Mezuak **bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen du.**
- Mezuak **bilatzeko aukera ematen du.**
- **5 GBko** edukiera du.
- **Kontaktuak** kudeatzeko aukera ematen du.
- **Zereginen egutegia** ere badu.
- **Euskaraz nahiz gaztelaniaz** erabili daiteke.
- **A Bikoitza**.

## Posta-kontua aktibatzea

Behin Bizkaiko Foru Aldundiak bidalitako gutuna jaso ondoren, pertsona bakoitza zerbitzuan erregistratu daiteke, honako prozedura honi jarraituta:

- Aktibatze-prozesuari hasiera emateko, **“Aktibatu nire kontua”** aukeratu behar du, herritarraren posta elektronikoaren atariaren orri nagusian http://www.bizkaia.eu.
- Hori egin ahal izateko, honako informazio hau eman beharko du:
  - Bere jaiotza-data
  - Jasotako gutunaren taula gorrian agertzen diren karaktereak

# Aktibazio-pantailaren adibidea



# Aktibazio-pantailaren adibidea



# Posta-zerbitzua abian jartzea

- Lehenengo fasean, posta-zerbitzu hau honako udalerri hauetako herritarrek bakarrik erabili ahal izango dute:
    - Abanto-Zierbena
    - Balmaseda
    - Basauri
    - Galdakao
    - Mundaka
    - Arratiako Mankomunitatea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri)
- Beraz, zerbitzua abian jartzeko fase honetan, **udalerri horretan erroldatutako herritarrak bakarrik erregistratu daitezke zerbitzuan.**
- Hilabete honetan zehar, Bizkaiko gainerako udalak ere sartuko dira.

# Herritarrei arreta emateko zentroa

- Herritarrek doako posta-zerbitzu honen inguruan izan ditzaketen zalantzak edo gorabeherak argitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak herritarrei arreta emateko zentro telefoniko bat jarri du. Zentro horrek honako ezaugarri hauek izango ditu:
  - Doako arretarako telefonoa, **900 840 250**
    - Arretarako ordutegi etengabea**, 9:00etatik 21:00etara,** astelehenetik igandera.
    - **Ahozko postontzi bat** dago, arreta-ordutegitik kanpo gertatutako gorabeherak jasotzeko.
  - Galderak edo gorabeherak posta elektroniko bidez igorri ahal izateko helbide elektronikoa: info@biscaytik.eu.
- Herritarrek zerbitzuaren inguruan egindako galdera eta gorabehera guztiak herritarrei arreta emateko zentro honetan bideratu behar dira.
- Herritarrek posta-zerbitzuaren inguruko galdera ohikoenei ematen zaizkien erantzunak kontsulta ditzakete honako URL honetan: http://www.bizkaia.eu.